


EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA
2014-2017

2020KO PLANA



OHARRAK

2013-2017 bitartean plan estrategikoa garatzen aritu ondotik, azken bi urteetan plan hori bera luzatzen aritu gara, urteko ekintza planetan zenbait egitasmo berri txertatuz (mentoretza, harrera plana, Euskaraldia...). Luzapen horren arrazoiak hainbat izan dira, hala nola euskara zerbitzuan izandako gora-beherak (langileen bajak eta lanaldi murriztuak) eta Nafarroako Toki Administrazioaren legeak mankomunitateetara ekar zitzakeen aldaketak.

Horiek alde batera utzirik, eta batik bat kontuan hartuta Toki Administrazioaren legearen garapena itxura guziaren arabera gibeleratu egingen dela, 2020 urteak plan estrategiko berria egiteko urtea izan behar du. Hortaz, ekintza plan honetan hori ere jasotzen da.

Horrekin batera 2013-2019 plangintzaldiaren ebaluazioa ere egingen da.

Arantza, 2019/10/21
Urko Ikardo eta Patri Arburua
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
1. Familia bidezko transmisioa	<p>1.1. Umea jaio eta eskolatu bitartean (0-3 urte), familiei etxean euskara gehiago erabiltzeko gomendioak eta baliabideak eskaini:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Ongi etorri jaioberri!</i> material berriaren banaketa. Euskarri berriak izanen dira, Nafarroako euskara teknikarien sareko lantaldeak sortuak. Haur jaioberrien familia guztiei banatuko zaie. Horrekin batera familietan hizkuntzekin sortzen diren egoera ezberdinak islatzen dituzten bideoak ere zabalduko dira. ○ Oinarrizko aholkuak jasotzen dituen informazio horrekin batera, familiei baliabideren bat ere eskainiko zaie, nahiz eta aztertu gabe dagoen zein izanen den. ○ ERA plataformaren aterkipean garatuko den egitasmoa da. 				
	<p>1.2. Umea eskolatzean, familiak eta eskolak euskararen transmisioan eta erabileran betetzen dituzten funtzioak argitu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Hiru urteko haurren familientzako euskarri berriak izanen dira, Nafarroako euskara teknikarien sareko lantaldeak sortuak. ○ Ikastetxeetan gaiari buruzko saioak (hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, bilerak...) antolatu, gurasoen eta hizkuntz tipologia ezberdinak aintzat hartuta. ○ Oinarrizko aholkuak jasotzen dituen informazio horrekin batera, familiei baliabideren bat ere eskainiko zaie, nahiz eta aztertu gabe dagoen zein izanen den. ○ ERA plataformaren aterkipean garatuko den egitasmoa da. 				
	<p>1.4. <i>Euskarazko produktuen katalogoaren</i> paperezko edizioa banatu eta edizio digitala ezagutzera eman. Baliabide hau ere 1.5 puntuan aipatzen den egitasmo zabalaren barne kokatuko da, eta gurasoei umeei euskara erabiltzeko eskainiko zaizkien baliabideen artean kokatzen da. Paperezko katalogoaz eta edizio digitalaz gainera, material egitasmo honen inguruko material gehiago sortzen ari da urtez urte (poltsa, orri-bereizgarriak, gometsak, etab).</p>				
	<p>1.5. ERA plataforma (eranafarroa.eus) garatu eta indartu. Web orri horretan biltzen dira eta are gehiago garatu, familietan euskararen erabilera indartzeko egitasmo guztiak. Plataforma horrek isla du sare sozialetan ere.</p>				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
2. Helduen euskalduntze eta alfabetatzea	<p>2.1. Helduen euskalduntze-alfabetatzea doakoa izateko beka sistema eskaini eta horren jarraipena egin euskaltegiarekin batera.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Diru laguntza deialdiaren ingurukoak: deialdia argitaratu, eskaerak jaso eta ebatzi. ○ Euskaltegiarekin elkarlana eta prozesu osoaren jarraipena. 				
	<p>2.2. Euskalduntzea eta alfabetatzea sustatu motibazio praktikoetan eta identitarioetan oinarrituta.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Komunikazio kanpaina egitea matrikulazioa sustatzeko, euskaltegiako kanpainetikiko osagarri. Euskara doan ikasteko aukera azpimarratu. ○ Nafarroako sarearekin elkarlanean ari, euskara ikasten ari direnei laguntza eta baliabideak eskaintzeko, eta euskara ez dakiten herritarrak erakartzeko: <i>Elaide.eus</i> egitasmoa. ○ Euskalduntze-alfabetatzeko mezua indartu matrikulazio kanpainatik harago. ○ Alfabetatzea bereziki landu beharra duten adin talde eta sektoreetan. ○ Matrikulazioa sustatzeko ekintzak: irakurketa saioa, kantaldia, ikastaroa, etab. 				
	<p>2.5. Hizkuntza kalitatearen inguruko kezka azaleratu eta herritarrei gaia jorratzeko aukera eman, ohiko ikastaroen moldeetatik harago.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Etxetik Plazara</i> (paperean, irratian eta sarean). ○ Bortzirietako hizkerari buruzko saioak prestatu Toki-Onan eskaintzeko. Hizkuntza kalitatea lantzeko baliatu. 				
	<p>2.6. Euskaltegiaren eskaintza berraztertu, berritu eta dibertsifikatu (hitanoa, laneko euskara, hobetze ikastaroak, bertako euskalkia, gurasoak, merkataria...).</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikastaro bereziak: ostalari eta zaintzaileentzako (<i>Euskara+</i>) ikastaroak eskaini. Ikus 8.1. ○ Bertako euskalkiari buruzko ikastaroa prestatu. ○ Irakasleen formazio beharrei lagundu. 				
	<p>2.7. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Solaslaguna. ○ Mintzodromoa. ○ <i>Elaide.eus</i>. 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
3. Hezkuntza	3.1. Bortzirietako ikastetxeekin elkarlanean Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua prestatu. <ul style="list-style-type: none"> ○ Mankomunitatearen hasierako plan estrategikoan jasotzen zen ikastetxeetan hizkuntza proiektua bultzatzeko asmoa. 2018-2019 ikasturtean Hezkuntza Departamentuak ikastetxe guztiei (publiko, ikastola nahiz kontzertatuei) hizkuntza proiektua osatzeko betebeharra jarri die. Proiektu hori prestatzeko ikastetxe bakoitzak Hizkuntza Batzorde bat eratu behar du. Euskara zerbitzutik ikastetxe guztiei eskaini zaie batzorde horretan parte hartzeko eta proiektua elkarrekin lantzeko aukera. ○ Proiektu horretan integratu ahalko dira mankomunitateak familia bidezko transmisioaren esparruan, hezkuntzakoan nahiz aisialdikoan garatzen dituen hainbat egitasmo, baita UEMAko HEDATU egitasmoko tailerrak, materialak, etab. 				
	3.3. Ikastetxeetan harrera planak prestatu (ikus 8. ataleko mentoretza eta harrera planeko ekintzak): <ul style="list-style-type: none"> ○ Bortzirietara kanpotik datozen familia berriei euskararen inguruko informazioa eman. ○ Haur etorri berrientzako euskararanzko ibilbidea planifikatu. 				
	3.5. Beran D ereduaren aldeko eskolatzeko kanpaina egin, Nafarroako euskara teknikarien sarearekin elkarlanean.				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
4. Administrazioa	4.1. UEMArekin koordinatu eta elkar lanean ari. <ul style="list-style-type: none"> ○ Udaletako hizkuntza irizpideen jarraipena egin. ○ Eragite lana. Osasun arloa, enplegu bulegoak, etab. Nafarroako lan taldean parte hartu. ○ Deiadarka foroan parte hartu. ○ Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu. 				
	4.2. Gizarte Zerbitzuen eta Hiri Hondakinen mankomunitateetako planak. <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipen batzordeak eratu eta inplementazioa. 				
	4.3. Bortzirietako udal eta mankomunitateetako langileen euskarazko prestakuntza: <ul style="list-style-type: none"> ○ Udal langileentzako ikastaro berezituak: bi ikastaro aurreikusten ditugu, eguneratzekoa eta sakontzekoa, betiere langileen beharren arabera. Baztan eta Malerrekako euskara zerbitzuekin elkarlanean. Euskarabideari galdetuko diogu ikastaroak presta eta eman ditzala. 				
	4.4. Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Bortzirietako udal langileen hizkuntza eskakizunen txosten berria aplikatu, eta plantilla organikoak horren arabera egokitu. ○ Hizkuntza eskakizunen betetzea ziurtatu, eta udalei aholku eman. ○ Euskara probak egiteko eskaerak bideratu; Euskarabideko akreditazio zerbitzuarekin koordinatu. 				
	4.5. Udalez gaindiko administrazioek euskaraz egin dezaten eragin, eta herritarren hizkuntza eskubideak babestu. <ul style="list-style-type: none"> ○ Nafarroako Gobernua, estatuko administrazioa, etab. ○ UEMArekin eta hizkuntza eskubideen Behatokiarekin, zein gainerako udal euskara zerbitzuekin lankidetzan aritu. 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
5. Arlo sozioekonomikoa	5.1. Bai euskarari ziurtagiria. <ul style="list-style-type: none"> ○ Ziurtagiria sustatzeko ekintzak: bestetako iragarkiak eta diru laguntzak ziurtagiridunei. 				
	5.2. Merkataritzan eta zerbitzu sektorean eragin, merkatarien elkarrekin elkarlanean. <ul style="list-style-type: none"> ○ Merkataritza kanpaina Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan: euskarazko zerbitzu eskaintza lagundu eta euskarazko eskaera sustatu. ○ Euskara zerbitzuaren eskaintza (aholkularitza, itzulpenak, ereduak, etab.) jakinarazi. ○ <i>Herrian erosi, euskaraz erosi</i> egitasmoaren sustapena egin AHIZE aholkularitzaren bidez eta material berria eskaini: harategiak, arrandegiak, etab. 				
	5.3. Udaletan hizkuntz irizpideak eta arauak onartu irekitzera doazen zerbitzu berrientzat. <ul style="list-style-type: none"> ○ Errotulazioa. ○ Idatzizko erabilera. 				
	5.4. Euskara zerbitzuak aholkularitza eta laguntza eskaintzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Merkatarari, dendari, ostalari eta zerbitzu-takako laguntza eskaerei (aholkularitza, materiala, itzulpenak, ereduak, etab.) erantzun. UEMAko zerbitzuarekin koordinatu. 				
	5.6. Lan arloko eragileen arteko gogoeta eta elkarlana. <ul style="list-style-type: none"> ○ Bortzirietako lantegietako euskara batzordeak aholkatu eta haiekin elkarlanean ari. Ekintza honek lotura izanen du 2020ko Euskaraldiarekin. 				
	5.7. Lan arloan eta enpresetan euskararen erabilera areagotu, eragileekin elkarlanean. <ul style="list-style-type: none"> ○ Euskararen erabilera normalizatzeko eta areagotzeko adostasuna lortu eragileen aldetik. Plan estrategikoan aurreikusten zen ekintza da, eta lotura izanen du 2020ko Euskaraldiarekin. ○ Nafarroako Gobernuaren diru laguntza deialdira Bortzirietako enpresetan euskararen erabileran eragiteko egitasmoa(k) aurkeztu. 				
	5.8. Lantegietan langileen arteko erabilera informala sustatu. <ul style="list-style-type: none"> ○ Plan estrategikoan aurreikusten zen ekintza da, eta lotura izanen du 2020ko Euskaraldiarekin . 				
	5.9. Turismoaren promozioan euskararen erabilera sustatzeko ekintzak. <ul style="list-style-type: none"> ○ UEMAren lantalde espezifikoan parte hartu. ○ Turistentzako argitalpena (hiztegitxoak) berriz banatu (Baztan-Malerreka-Bortzirietak). 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
6. Aisialdia	6.1. Haurrentzako ludotekak, udalekuak, sormen tailerrak... antolatu.				
	6.3. Haurren aisialdian aritzen diren begiraleen trebakuntza antolatu.				
	6.4. Euskararen erabilera helburu duten udaleku itxien eskaintzaren berri eman.				
	6.6. Haurrentzako kirol jarduerak antolatzen dituzten eragileen artean hizkuntzaren erabileraz gogoeta sustatu eta hizkuntza irizpideak landu (begiraleen hizkuntza gaitasuna, ahozko erabilera, erabilera idatzia...). Kirol arloan aritzen diren eragile eta entrenatzaileentzako ikastaroa.				
	6.8. Herrietako elkarteetan hizkuntza irizpideak proposatu eta landu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Egoeraren diagnostikoa egin. ○ Hizkuntza irizpideak landu eta adostu. ○ Segimendu taldea eratu. ○ Euskarazko baliabideak aztertu eta zabaldu. Plan estrategikoan aurreikusten zen ekintza da, eta horrez gain Euskaraldiaren 2019-2020ko egitasmoarekin lotua egonen da.				
6.9. Familiak haurren aisialdia euskaraz izan dadin sentsibilizatzeko euskarriak prestatu (liburuxka, bideoa...): <ul style="list-style-type: none"> ○ Materiala Nafarroako euskara zerbitzuen sareko Aisialdi lantaldean landuko da, eta ERA plataformaren aterkipean egingen da. 					

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
7. Gazteak	7.1. Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatu: <ul style="list-style-type: none"> ○ “Irakurriz gozatu” ekimena: <i>Beitu</i> aldizkari digitala eskaini DBH4ko ikasleei eta GazteZulo BT2, EMHZ2 eta GMHZ1ekoei. 				
	7.2. Gazteen artean euskararen erabilera indartzeko, motibazioa lantzeko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamika abian jarri. <ul style="list-style-type: none"> ○ DBHko gazteekin euskararen erabilera eta motibazioa ardatz izanen duten saioak antolatu, eskola orduetan eskaintzeko. ○ Lotura izanen du 2020ko Euskaraldiarekin. 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
8. Hizkuntz integrazioa	8.1. Etorri berrientzako harrera: <ul style="list-style-type: none"> ○ Bortzirietako hizkuntza harrera plana gauzatu. <ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza harrera egin bi euskarri erabilita. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskara mankomunitateak propio sortutako ikus-entzunezkoa. ▪ UEMAK prestatutako eskuorria. ○ Udal erakundeetako/ikastetxeetako harreragileei formazioa. ○ Ongi etorria emateko/egiteko prest dauden herritar bolondresen taldea osatu. ○ Harrera sareko herritarrei formakuntza euskara eta aniztasunari dagokionean. ○ <i>Euskara+</i> ikastaroari segida eman. ○ Arantzan, Etxalarren eta Igantzin herritar etorri berriekin ongi etorri bilerak antolatu herriko etxean. 				
	8.4. Hizkuntz ohiturak aldatzeko dinamikak landu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Bereziki euskaldunak izanda ere gaztelaniaz aritzen diren herritarrengan eragin. 2020ko Euskaraldiarekin lotuta landuko dugu. 				
	8.5. Mentoretza programa: <ul style="list-style-type: none"> ○ 8 eta 12 urte bitarteko haur etorri berriei hizkuntza integrazioarako laguntza eta baliabideak eskaini, Topagunearekin eta Bortzirietako ikastetxeekin elkarlanean. ○ Mentoreak saritzeko bi moduak uztartu: ordainsaria eta kredituen baliokidetzea. 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
9. Kulturgintza	9.1. Herrietako kultur ekitaldiak antolatu: <ul style="list-style-type: none"> ○ Arantza, Igantzi eta Etxalarren kultur egunak antolatu, herriko gainerako kultur eragileekin elkar lanean. ○ Lesakan “Euskaraz bai” eguna antolatu ekainaren 23an. ○ Beran kafe antzerki zikloa antolatu, azaroan, Berako Kultur Batzordearekin elkar lanean. 				
	9.2. Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu. <ul style="list-style-type: none"> ○ “Bertsolaritza Irakaskuntzan” programa bermatu. ○ Haur eta helduen bertso eskolen jarduna sustatu. ○ Bertso eskolaren jarduerak (txapelketak, saioak, topaketak...) bultzatu. 				
	9.4. Etxepare literatur sariketa antolatu eta lan sarituak zabaldu (euskara teknikarien saretik). Etxepare erakusketa antolatu.				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
10. Komunikabideak eta teknologia berriak	10.1. Tokiko euskarazko esparru komunikatiboa babestu, sustatu eta zabaldu. <ul style="list-style-type: none"> Diru laguntza publikoak sektore estrategikoari. 				
	10.2. Bertako komunikabideek darabilten hizkuntzaren kalitatea eta euskararen erabilera landu. <ul style="list-style-type: none"> Hedabideetako langileentzako ikastaroa (hedabideei aholkua eman eta ikastaroa elkarlanean antolatzeko aukera aztertu). 				
	10.5. Teknologia berrietan eta harreman mota berrietan euskararen sarbidea ziurtatu eta erabilera bultzatu. <ul style="list-style-type: none"> Esparrua ikertu. Eskualdeko blogari eta Youtuberren eskaintza sortu eta handitzeko eragin. Sarean euskaraz ikastaroa antolatzeko elkarlana eskaini. 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
11. Corpusa	11.3. Bortziritako toponimia xehearen, batez ere oikonimiaren, erabilera bultzatu: <ul style="list-style-type: none"> Etheen errotulazioa (Bera eta Arantza). 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
12. Egoera soziolinguistikoa	12.1. Bortziritako egoera soziolinguistikoaren segimendua egin eta horren berri eman. <ul style="list-style-type: none"> 2019ko kale erabileraren neurketa eginda, emaitzak aurkezteko saioa egin, eta txostena eskuragarri paratu webgunean. Bortziritako ikastereduen bilakaerari segimendua egin. Euskaltegiko matrikulazioen bilakaerari segimendua egin. Euskalgintzari eta herritarrei egoeraren berri eman. Kontsultei erantzun. 				
	12.2. Euskaraldiaren eraginari buruzko neurketa berezia Bortziritan. <ul style="list-style-type: none"> Euskaraldiaren eraginari buruzko neurketa berezia eginda, emaitzak aurkezteko saioa egin, eta txostena eskuragarri paratu webgunean (13.8. atalarekin lotzen da). 				

ESPARRUA	EKINTZA	1. hh	2. hh	3. hh	4. hh
13. Parte hartzea eta antolamendua	13.1. Mankomunitatearen egitura eta funtzionamendua berrikusi, aztertu eta euskaingintza aktibatze bideak eta lan moldeak landu. 13.2 puntuarekin lotuta dago, eta gogoeta estrategikoaren bidez landuko da.				
	13.2. Euskaingintza indartu, elikatu eta gogoeta sustatu. 13.1 puntuarekin lotuta dago, eta gogoeta estrategikoaren bidez landuko da.				
	13.3. Komunikazioa eta zabalkundea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Mankomunitatearen webgunea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Webgunea elikatu. ○ Webgunean hobekuntzak egin. ○ Harremanetarako bitartekoa eskaini herritarrei. ○ Sare sozialak eta teknologia berriak erabili hedapenerako. ○ Euskara mankomunitatearen ikus-entzunezko komunikazioa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Mankomunitatearen bideo kanala elikatu, sare sozialen osagarri. ○ Mankomunitatearen jarduera, ekintza eta ekitaldien ikus-entzunezko eduki propioak sortu eta hedatu, Malerrekako euskara zerbitzuarekin elkarlanean. ○ Mankomunitatea erakunde bezala ezagutzera eman eta antolatzen dituen jarduera guztietan aurkeztu eta bere irudia zabaldu. 				
	13.4. Bortzirietako era guztietako eragileekin eta Euskal Herrian hizkuntz normalizazioan ari diren eragileekin elkarlana.				
	13.5. Mankomunitatearen kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa.				
	13.6. Mankomunitateak ematen dituen diru laguntzak kudeatu.				
	13.8. Euskaraldiaren jarraipena: 2020ko egitasmoa definitzen hasia dago. Hasiera batean lanketa entitateekin egingen da, eta 2020ko azaroan eta abenduan berriz ariketa soziala errepikatuko da, ahobizi eta belarriprest figurekin, eta arigune kontzeptua gehituta.				
	13.9. Plan estrategikoaren (2013-2017) ebaluazioa egin.				
	13.10. Plan estrategiko berria diseinatu, gogoeta estrategikoan oinarrituta.				